

IPARRAGIRREREN OOREZ Euskara[^]

BAT. Iparragirrek kanta-kantari erabili zigun euskara mundu guzian barna. Iparragirrek munduari eman zion fruiturik gozoena euskara izan zen. Iparragirrek, here biotza eta mingaina medio (komunika-bide), itzez edo kantuz munduari mezuren hat edo beste emateko beti euskara artuko zigun. Iparragirrek fruitu onen, euskararen usain gozoa eman eta zabaldu zigun, noski, munduan barrena.

BI. Ori orrela izanik, nun eta Madrilen bertan, Gernikako arbola, ametsez, begi-bistan dualarik, irrintzian, euskaldunati kantatuko dio: «Eman da zabal zazu munduan fruitua». Noski, fruitu ori, euskal-arnasa da. Euskal-bizia da. EUSKARA DA!! J

IRU. Jose Maria Iparragirre zenaren eriotzaren mende-urrena ospatzen ari gara. Eta une onetan guk galdera auxe egin nai diogu erriari. Fruiturik eman da zahaltzen ote dugu munduan zear gaur eguneko euskaldunok?

Urte auetan fruitu bezala saltsa-perritxikoa, eta mutur-salda, eta intxaur-salda, eta «nueva cocina vasca» delakoa

eman eta zabal izan ditugu munduetan, baiñian benetako fruitua, Madrilen Iparragirrek eman edo, esan edo, kanta zigun fruitua, EUSKARA, nun dugu? PikutanU! TxoritanU!

LAU. Iparragirre zenaren eriotzaren mende-urren onetan euskara eman eta zabal bearrez gaude... kalean, tabernan, pesta-lekutan, trenean, busean, kiroletan, telebistan, erri-irratietan...

BOST. Kalean. Erri batzuetan ikus oi duguna da aza-lapikoa. J akin euskaraz mintzatzen eta ala ere erdarara jo oi dugu. Kale askotako fruitua, galipot artean jaio eta azitako aza da. Gallego-aza. Kale erdiko lapiko aundi beltzean egosien ipini dugun txakur-aza, Erdera.

Euskaldunok geiegi erabiltzen dugu kaleko elkar-izketan erdera. Olio-aza-usaina zabaltzen dugu. Ez, ordea, Gernikako arbolaren arnasarena!

SEI. Tabernetan, pesta-lekuetan. Leku oietan gaztedi berriak errezegi jotzen du, euskara baztertuz, «por peteneras», itzegitera. Kalean, noiz nai, oiuka, manifestamenean, «euskarari bai» ibilli denak, ez dakigu, guk, zen delata, ostiaka, mekauenka, erdera utsean jardun bear duan tabernan, ibilli bear duan jolas-leku-alaietan, olio-aza usaina inguruetan zabalduz. Iparragirrek, Madrid-zuloan, orduko jolas-toki batean, kafeteri batean, abestu zigun euskaraz «eman da zabal zazu munduan fruitua». Tabernetako eta jolas-tokietako gazteek au go-goan artu bear lukete. Noski.

ZAZPI. Trenean, Busean, Trenen otsa, trenak aizea ebakitzean ateratzen duan donua, euskal abestia, «euskal Salmoa». dela betidanik pentsatu izan dugu.

Busak, batez ere gaueko busak, illunean, martxa bizian, beltzci aurreko argiarekin puskatzean erakusten digiñ lur zaitia, euskal-erri dela, euskara dariola galipotak, intzak, zokorrak, eltxoak beti pentsatu izan dugu. Orduan, zergatik entzuten da ainbeste erdera gure tren eta busetan? XJste dugu Iparragirre zenaren eriotzaren mende-urrenean, bere oorez,

trenetan eta busetan gabiltzanok trenaren donuari erantzunik, busak argitutako galipotari, intzari, zokorrari, eltxoari eranizunik, euskara geiago erabilli bear gendukela.

ZORTZI. Kiroletan. Kiroiez beterik daukagu euskal-erria. Kirol zaarrak eta berriak ditugu. Aizkora. Itaia, Arria. Aria. Idia. Milla gauza kirol-bide dira gure artean. Berezkoa du jokoak euskaldunak.

Badakigu kirol askotan euskara dela nagusi. Idi-probatan, ari-jokotan, arri-jasotzetan, esate baierako, euskarak irabazten dio erderari. Errezki irabazi ere. Bainan joko berri xemar den futbol delakoan? Iparragirre zenaren erioaren eun-urte betetzean eraman dezagula euskara futbol zelaiara. Amaika eta uts euskarak menderatu dezala erdera, txapeldun Iparragirren izkuntza izan dadin.

BEDERATZI. Telebistan. Erri-irratietan. Iparragirren erioaren eungarren urtean, guk Eusko Jaurlaritzari esan nai diogu aalegin guziak, gogor, egin ditzala bereala telebista eta erri-irratia izan ditzagun. Telebista, batez ere, uste dugu pitxirik eta andarrerik ederrena dela. Ederrena delako, bai, aatik eta datik, madridtarrak eurentzako bakarrik nai dute pitxi ori, pitxiak aspertzeke, gau eta egun, erderaz itz egin dezaion erriari, Andaluziari bezala Euskadiri. Aurki, aritzaren kanta darion telcbista nai dugu. Aza-usaina dariona eurentzako. Eta on egin dezaiea. Biotzez. Eta on egin dezcdgula. Biotz-biotzez-

AMAR. Kaleetan, tabernetan, jolas-alai-lekuetan, kirolean, telebistan, erri-irratietan, euskaraz eginez ederki-asko ospatu dezakegu eta ospatu bearko dugu gure Iparragirre aundiaren eriotzaren eungarren urte-betetzea.